

## VI GURE GURASOEN JAUNGOIKOA

*-Aitita! Amama!*

*-Iloba, zer dozu?*

*-Norgaitik? Zergaitik  
hain pozik zagoz zu?*

1

Euskaldun sortu nintzan  
ta euskaldun bizi,  
gurasoak euskeraz  
eusten irakatsi.

2

Jaio ta bateatu  
biharamonean,  
txikitatik bizi naz  
kristautasunean.

3

Gurasoen ondoan  
hazi naz fededun,  
eta Euskalerrian  
eurak lez euskaldun.

4

Hamar anai-arreba  
izanak gara gu,  
hau pozik esateko  
kontutzat daukagu.

5

Zortzi seme-alaba,  
zer poza daukagun!  
Ondo hazi ditugu  
Jaungoikoa lagun.

6

Beti izan dogu maite  
gure Jaungoikoa,  
gu pozik biziteko  
ez al da nahikoa?

7

Gu ahalegindu gara  
parkatzen alkarri,  
eta alkar laguntzen;  
ez al da pozgarri?

8

Aberatsak ez gara  
baina bai onradu,  
orain hobeto gabiltz  
ta poza daukagu.

9

Ondo probauta gagoz  
nekez eta lanez,  
baina pozik aurrera  
ahal dantxoa janez.

10

Bizimodua zer dan  
guk ondo dakigu,  
sinistu nahi badozu  
hona geu testigu.

11

Hara ta hona gabiltz  
pozik eta bakez,  
ahal dan ona eginez  
geure borondatez.

12

Etxean ta kalean  
badogu zer egin:  
on egin nahi dauana  
jubilatu ezin.

13

Urte asko daukagu  
eskerrak Jaunari,  
bakez begiratuaz  
etorkizunari.

14

Gu beti izan gara  
eleiztar ta kristau,  
poz-pozik biziteko  
asko balio dau.

15

Jainkoa Aita da ta  
ez dogu bildurrik,  
guk ez dogu egiten  
betiko agurrik.

16

Bizian Gora dogu  
gure Alkartea,  
hantxe indartzen gara,  
hau da suertea!

17

Jaso, ilobatxoa,  
gure erentzia:  
maitasunez emonda  
esperinetzia.

18

Zuengan luzatzen da  
gure arrazia,  
frutuz bete dadila  
erein dan hazia.

19

Laster joango gara  
Jainko Aitagana,  
han alkartuko gara,  
iloba laztana.

20

Munduan zu eta gu  
gara txandakoak,  
zeuk hobetu egizuz  
guk egindakoak.

21

Ez ahaztu gure poza  
Jaungoikoa dala,  
zu eta gu, iloba,  
bedeinka gaizala!

22

Horra aititamamak  
bihotzez esana:  
Zergaitik bizi garan,  
hain pozik, laztana.